TOLOSAKO UDALA

2025IGBA0030

# TOKIKO GOBERNU BATZARRA

**2025.10.07**

**Alkatea:**
**Angel Martinez de Rituerto Arregui**

**Bertaratutako zinegotziak:**
**Ander Figuerido Zubiria**
**Cristina Pelaez Errazquin**

**Ez dira bertaratu:**
**Miren Yosune Sanz Vidal**
**Goiuri Eceiza Arandia**

**Udal idazkaria:**
**Sara Berasategui Fuertes**

**Kontu-hartzaile akzidentala:**
**Paulino Alonso Eraso**

**Tolosako udaletxean, bi mila eta hogeita bosteko urriaren zazpian, 10:00etan, bigarrengo deialdian, Tokiko Gobernu Batzarra bildu da ohiko bilera egiteko. Mahaiburu alkatea izan da eta alboan aipatutako zinegotziak agertu dira, gai-zerrenda hau aztertzeko:**

1. **Akta hau onartzea:**

   **2025eko irailaren 30ekoa.**

2. **Onartzea, hala badagokio, lankidetza hitzarmena sinatzea ELOGE zigilu europarra ezartzeko lantalde batean parte hartzeko.**

3. **Onartzea, hala badagokio, Etxez Etxeko laguntza zerbitzua finantzatzeko Gipuzkoako Foru Aldundiak egindako hitzarmen luzatzeko proposamena.**

ESKU54767aae-5848-4ac7-be6d-471bb884599a

## 1. <u>AKTA HAU ONARTZEA: 2025EKO IRAILAREN 30EKOA.</u>

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, izenburuan aipatutako akta aztertu dute.

Aho batez onartu dute.

**2. ONARTZEA, HALA BADAGOKIO, LANKIDETZA HITZARMENA SINATZEA ELOGE ZIGILU EUROPARRA EZARTZEKO LANTALDE BATEAN PARTE HARTZEKO.**

**I K U S I R I K**

LEHENA.- Modernizazio teknikariak txosten teknikoa egin duela, eta honako hau adierazi duela:

*LEHENA.- Tokiko esparruko Gobernantzako Bikaintasunaren Europako Zigilua, ELOGE, Europako Kontseiluak tokiko esparruan berrikuntzarako eta gobernantza onerako ezarri duen estrategiaren oinarrietako bat dela. Estrategia hau tokiko eragileen eta gainerako instituzioen ekintza mugiarazi eta pizteko xedez ezarri zen, Europako herritar guztiek gobernantza demokratiko ona izan dezaten tokiko esparruan.*

*BIGARRENA.- Bere estatutuetako 5. artikuluan jasotzen diren Tokiko Demokrazia sustatzeko eta babesteko eginkizunetan oinarrituta, EUDELek (Euskadiko Udalen Elkarteak) eskualdeko plataforma izendatu dezan eskatu dio Europako Kontseiluari, zigilua ezartzetik eratorritako konpromiso eta betebeharrak bere gain hartzeko, eta, metodologiarekin bat etorriz, Euskadiko udalei ELOGE zigilua eman ahal izateko.*

*HIRUGARRENA.- Tolosako Udalak ELOGE zigiluaren metodologia ezarri nahi du bere antolakuntzan. Erakunde honen ustez, tresna hau tokiko gobernantzaren aldeko apustua da, ELOGE zigiluaren eskualdeko plataformarekin koordinatutako hobekuntzarako etengabeko prozesu sistematikoarekin bat etorriz.*

*LAUGARRENA.- Euskadiko udalen artean ELOGE zigilua bultzatzeko asmoz, EUDELek lantalde bat eratzea proposatu du. Lantalde horrek ELOGE zigiluaren metodologia garatzen lagunduko du, eta aipatutako metodologia ELOGE zigilua egiaztatzeko interesa agertu duten Euskadiko udalen antolakuntzan ezarriko da.*

**K O N T U A N   H A R T U R I K**

LEHENA.- 2025eko irailaren 1eko datarekin, txosten juridikoa igorri dela, eta aldekoa dela.

BIGARRENA.- 2025eko irailaren 18ko datarekin, fiskalizazio txostena igorri dela, eta aldekoa dela.

7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, 22.2. f) artikuluan xedatutakoaren arabera, honako organo honi dagokio arlo honetako onespena ematea: Alkatea.

ESKU54767aae-5848-4ac7-be6d-471bb884599a

Bestalde, Tolosako Alkatetzak, 2023ko uztailaren 3ko 2023/1707 Dekretuaren bitartez, lankidetza-hitzarmenak onartzeko ahalmena Tokiko Gobernu Batzarrari eskuordetzea erabaki zuen. Horiek horrela, Tolosako Udaleko Tokiko Gobernu Batzarra da hitzarmen hau onartzeko organo eskuduna.

Beraz, aurreko guztia aintzat hartuta, eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

**E R A B A K I   D U**

LEHENA.- Tokiko Gobernu Batzarrari aipatutako lankidetza-hitzarmena onartzeko eta hura egikaritzeko ebazpen proposamena egitea.

BIGARRENA.- 7.865,00 € euroko gastua onartzea eta xedatzea, 2025eko aurrekontu partida honen kargura: 0300.227.07.920.00.

HIRUGARRENA.- Hitzarmena hitzarmenen erregistroan inskribatzea, eta Gardentasun atarian eta Udaletxeko Iragarki Taulan argitaratzea, 19/2013 Legearen 8.1 artikuluaren eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 55. artikuluan xedatutakoaren arabera.

LAUGARRENA.- Hitzarmenaren testua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Gardentasun atarian eta Udaletxeko Iragarki Taulan argitaratzea, 19/2013 Legearen 8.1 artikuluaren b) atalean xedaturikoarekin bat.

BOSGARRENA.- Erabaki hau Modernizazioa eta Kontu hartzailetza Azpisailei jakinaraztea.

ESKU54767aae-5848-4ac7-be6d-471bb884599a

3. **ONARTZEA, HALA BADAGOKIO, ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA FINANTZATZEKO GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAK EGINDAKO HITZARMEN LUZATZEKO PROPOSAMENA.**

**I K U S I R I K**

**LEHENA.-** 2025eko irailaren 17ko datarekin eskaera erregistratu du Gipuzkoako Foru Aldundiaren Zainketetako eta Gizarte Politiketako Departamentuak 202-12282 erregistro zenbakiarekin.

Erregistroari erantsita honakoa adieraziz ofizioa erantsi da:

«Diputatuen Kontseiluak irailaren 10ean hartutako Erabakiaren kopia helarazten zaizue, PDF formatuan, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Gipuzkoako udal bakoitzaren artean etxeko laguntza zerbitzua finantzatzeko lankidetza hitzarmena urte batez luzatzea onartzen duena.

Onartutako luzapenak eragina izango du 2025eko urriaren 1etik 2026eko irailaren 30era, eta behin hori amaituta, alderdiek beste luzapen batzuk adostu ahal izango dituzte, betiere hitzarmenean aurreikusitako beste lau urteko gehieneko aldia errespetatzen badute.

Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalerrietan laguntza zerbitzua emateagatiko foru finantzaketaren urteko kostua 8.192.463,00 eurokoa izango da guztira, eta aurreko urteekiko aldaketarik gabe mantenduko da.

Honekin batera, sinatu beharreko Word formatuko artxiboa eransten da, udal eta mankomunitate bakoitzak egokitu dezan. Honela bete behar da:
1.- Goiburuan armarria erantsi (orriaren eskuineko goialdean eta orrialde guztietan)
2.- Eskumena duen udal organo bakoitzak hitzarmena onartu duen data (Udalbatzaren osoko bilkura…).
3.- Hitzarmena sinatzen duen pertsonaren izena eta kargua (alkate jaun/andrea, Mankomunitateko lehendakaria).

Hitzarmena urte batez luzatzea, behin udal-organo eskudunak onartuta eta dokumentua sinadura elektroniko bidez formalizatu ondoren, SIR sistemaren bidez Zainketa eta Gizarte Politiketako Departamentura, Etxeko Laguntzen Atalera bidali behar da.

Hori guztia ahalik eta azkarren egin beharko da, 2025eko urriaren 1a baino lehen bidali beharko baita aurretik zehaztutako agiriak.

Edozein zalantza argitzeko: Ione Iguaran. jiguaran@gipuzkoa.eus 943-112667

ESKU54767aae-5848-4ac7-be6d-471bb884599a

OHARRA: Arren eskatzen diegu udaletako gizarte zerbitzuetako arduradunei, helarazteko dokumentazio hau erabakia hartu behar duen organoko idazkariari eta kargu era erakunde publikoei, dagokien prozedura izapidetu dezaten.»

**BIGARRENA**.- Ainara Irazusta Zubeldia teknikariak txosten teknikoa egin duela, eta honako hau adierazi duela:

“

**Lehena.-** Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2008 legean eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzko 1875/2015 dekretuan xedatutakoaren arabera, Etxez-etxeko Laguntza Zerbitzua udal-eskumenekoa zerbitzua da.

2017 urtean, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Gizarte Politiketako Departamentuak eta EUDEL erakundeak lankidetza hitzarmenerako proposamen bat prestatu zuten, non finantziazio sistema berri bat ezartzen baitzen eta zenbait hobekuntza sartu baitziren zerbitzuaren eskaintzan, hala nola, zerbitzuaren iraupena eta intentsitatea handitzea, erabiltzaileen koordainketa txikiagotzea, eta zerbitzua mendekoen kalifikazioa ez zutenengana zabaltzea.

Ondorioz, 2018ko martxoaren 20an hartutako erabakiaren bidez onartu zuen Diputatuen Kontseiluak mendekotasuna duten pertsonentzako Etxeko Laguntza Zerbitzua finantzatzeko Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalekin sinatu beharreko hitzarmen eredua, eta, era berean, 2018ko uztailaren 26ko Ohiko Osoko Bilkuran onartu zuen Tolosako Udalak hitzarmen hori: 2018IHTP0001

**Bigarrena.-** 2021eko abenduaren 17an erregistratu zuen Gizarte Politiketako Departamentuak Tolosako Udaleko erregistro orokorrean, 11077 zenbakiarekin, iraungita dagoen hitzarmen hori berritzeko proposamena.

Proposamen horri dagokion udal espedientea izapidetu zuen, 2022IHTP0003, eta ondorioz, Tolosako Gobernu batzarrak, 2022ko maiatzaren 31n ospatutako saioan erabaki zuen:

<Onartzea Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Tolosako Udalaren arteko hitzarmena, etxez etxeko laguntza zerbitzua finantzatzekoa.>

Horiek horrela, 2022-1827 zenbakiarekin erregistratu zen hitzarmen hori sinatuta, 2022ko ekainaren 17ko datarekin. Hauexek dira hitzarmen horretan jasotako klausulak: (…)

**Hirugarrena.-** Hamalaugarren klausulan jasotakoaren arabera, 2023ko abenduaren 31ean amaitu zitzaion indarraldia hitzarmen honi. Dena den, aipatu klausula horrek berak ematen duen aukera baliatuta, urte natural bateko luzapena onartzea erabaki zuen

ESKU54767aae-5848-4ac7-be6d-471bb884599a

Tolosako Udalak 2023ko abenduaren 23an ospatutako Gobernu Batzordearen saioan. Era berean, epealdi hori iraungi aurretik, hitzarmenaren bigarren luzapena onartzea erabaki zuen Tolosako Udalaren Tokiko Gobernu Batzordeak 2024ko abenduaren 23an egindako bilkuran.

**Laugarrena.-** Hitzarmena indarrean sartu zenetik emandako Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuan aztertu da:

2022: Emandako zerbitzu kopurua→ 46.992,70 ordu
Artatutako onuradun kopurua→196 onuradun
Zerbitzuaren kostua→958.393,91€
Ekarpenak:
Onuradunak (ordenantza fiskaletan tasa)→136.430,74€
Gipuzkoako Foru Aldundia (hitzarmena betez)→ 235.177,83€

2023: Emandako zerbitzu kopurua→ 53.313,90 ordu
Artatutako onuradun kopurua→ 209 onuradun
Zerbitzuaren kostua→ 1.271.195,23 €
Ekarpenak:
Onuradunak (ordenantza fiskaletan tasa)→144.998,90 €
Gipuzkoako Foru Aldundia (hitzarmena betez)→ 435.195,94€

2024: Emandako zerbitzu kopurua→ 48.874,25 ordu
Artatutako onuradun kopurua→ 217 onuradun
Zerbitzuaren kostua→ 1.180.477,68 €
Ekarpenak:
Onuradunak (ordenantza fiskaletan tasa)→197.897,85 €
Gipuzkoako Foru Aldundia (hitzarmena betez)→ 301.121,44€

**Bosgarrena.-** Etxez Etxeko Zerbitzua udal eskumeneko zerbitzua dela kontuan izanik, Gipuzkoako Foru Aldundiak sustatutako lankidetza hitzarmen hori Tolosako Udalarentzat eta bere biztanleria osoarentzat guztiz onuragarria izan dela baloratzen da.

Zerbitzuan aldaketak ematea eta indartzea ahalbidetu du, alde batetik; eta beste alde batetik, Udalak zerbitzu indartu hori finantzatzeko laguntza esanguratsua jaso du.

Hain zuzen ere, hitzarmen honen harira zerbitzuaren azterketa sakona egin zen, eta Tolosako Udalak hautua egin zuen Aldundiak Gipuzkoan Etxez Etxeko Zerbitzua indartzeko eta homogeneizatzeko ahaleginarekin bat egiteko.
Gainera, zerbitzuaren kostu osoa estaltzeko balio ez badu ere, hitzarmenaren baitan Aldundiaren eskutik jasotako ekarpen ekonomikoak lagundu egiten dio Tolosako Udalari zerbitzuaren finantzazioan.

ESKU54767aae-5848-4ac7-be6d-471bb884599a

Azpimarratu behar da Gizarte Zerbitzuen legeak zehazten duela Udalaren eskumeneko zerbitzua dela Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua, eta ondorioz, zerbitzu horren kostuari ere maila horretan egin beharko litzaioke aurre, onuradunek egin beharreko ekarpenekin osatuz obligazio hori.

Dena den, hitzarmen honen ondorioz, 2022-2024 urte artean zerbitzuak eragindako kostuaren %25 finantzatu du erakunde horrek, eta nabarmentzekoa da hitzarmen honek Tolosako Udalari ekartzen dion onura ekonomikoa.

Aipatutako ondorio horiek direla eta, Gizarte Zerbitzuak eta Osasuna Sailaren iritziz Tolosako Udalaren interesekoa da hitzarmen honen indarraldia luzatzea.

Hori guztia kontuan izanda, txosten honen bidez proposatzen da:

**LEHENA:** Ontzat ematea Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Tolosako udalaren artean Etxeko Laguntza Zerbitzua finantzatzeko lankidetza hitzarmena urte batez luzatzeko proposamena, 2025eko urriaren 1etik 2026ko irailaren 30era bitarteko eraginarekin.

**BIGARRENA:** Hitzarmenaren gainerako zatiek irautea epealdi horretan.

**HIRUGARRENA:** Tolosako Udalak hitzarmen hori onartu eta sinatu dezan dagokion espedientea izapidetzea premiazko epealdian, luzapena formalizatzeko erabakia bideratu dadin 2025eko irailaren 30 baino lehen."

## K O N T U A N   H A R T U R I K

Txosten juridikoa igorri dela, eta honako hau dioela:

*" **LEHENA**.- Prozedura honetan ondorengo **araudia** da aplikatu beharrekoa:*

*- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena (aurrerantzean 7/1985 Legea).*

*- 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeena (aurrerantzean 2/2016 Legea).*

*- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena (aurrerantzean 39/2015 Legea).*

*- 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena (aurrerantzean 40/2015 Legea).*

*- 12/2008 Legea, abenduaren 5ekoa, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa (aurrerantzean 12/2008 Legea).*

ESKU54767aae-5848-4ac7-be6d-471bb884599a

- *185/2015 Dekretua, urriaren 6koa, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzkoa (aurrerantzean 185/2015 Dekretua).*

- *19/2013 Legea, abenduaren 9koa, Gardentasunari, Informazio Publikoa Eskuratzeko Bideari eta Gobernu Onari buruzkoa (aurrerantzean 19/2013 Legea).*

- *3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa (aurrerantzean 3/2018 Lege Organikoa).*

**BIGARRENA**.- *40/2015 Legearen 47.2 artikuluaren a) atalean jasotzen da Udal honek beste erakunde publikoekin hitzarmenak egiteko daukan eskumena:*

*"2. Administrazio publikoek, haiei lotutako edo haien mendeko organismo publikoek eta zuzenbide publikoko entitateek eta unibertsitate publikoek sinatzen dituzten hitzarmenak honako mota hauetariko batekoak izango dira:*

*a)* ***Administrazio publiko biren edo gehiagoren artean sinatutako administrazio arteko hitzarmenak****, edo administrazio publiko diferenteei lotutako edo haien mendeko organismo publiko edo zuzenbide publikoko entitate biren edo gehiagoren artean sinatutakoak. Hitzarmen horien barnean bildu ahalko da beste administrazio publiko baten edo lotutako edo mendeko organismo publiko edo zuzenbide publikoko entitate baten bitarteko, zerbitzu eta baliabideak erabiltzea, eskumen propioak edo delegatuak baliatzeko.*

*Salbuetsita geratzen dira autonomia-erkidego bik edo gehiagok zerbitzu propioak kudeatu eta emateko euren artean sinatzen dituzten administrazio arteko hitzarmenak, autonomia bakoitzaren estatutuak xedatzen duena izango baitute arau hipotesi, betekizun eta baldintzei dagokienez".*

*Gauza bera xedatzen du 2/2016 Legearen 100.1 artikuluak ere:*

*"1.– Toki-erakundeek lankidetza-hitzarmenak egin ahal izango dituzte bai beraien artean bai gainerako administrazioekin, kudeaketa publiko efizienteagoa lortzeko eta administrazio-bikoiztasunak ekidin edo ezabatzeko".*

*Konkretuki kasu honetan, aurrez sinatutako hitzarmenaren* ***luzapenaz*** *ari gara, puntu hau 40/2015 Legearen 49.h.2) artikuluan jasota:*

*"h) Hitzarmenaren indarraldia, honako erregela hauek kontuan hartuta:*

*1.a Hitzarmenek iraunaldi zehaztua izan beharko dute, gehienez ere lau urtekoa, non eta epe luzeagoa aurreikusten ez den arau bidez.*

*2.a Aurreko zenbakian aurreikusitako epea amaitu aurretik edozein unetan, hitzarmenaren sinatzaileek aho batez erabaki ahalko dute hitzarmena luzatzea, gehienez beste lau urterako, edo hitzarmena azkentzea".*

ESKU54767aae-5848-4ac7-be6d-471bb884599a

*Kasu honetan, hasierako 4 urteko iraupenera iristeko azken luzapena onartzen ari gara.*

***HIRUGARRENA**.- Hitzarmenei dagokienean zentratuz, 40/2015 Legearen Atariko Tituluaren VI. Kapituluan aurki dezakegu euren definizioa, 47.1 artikuluan hain zuzen:*

*"1. **Hitzarmenak dira ondorio juridikodun akordio batzuk,** administrazio publikoek, haiei lotutako edo haien mendeko organismo publikoek eta **zuzenbide publikoko entitateek edo unibertsitate publikoek beren artean** edo zuzenbide pribatuko subjektuekin **sinatuak, xede komun bat lortze aldera**".*

*Hala, hitzarmen honen xedea izango da aurrez Gipuzkoako Foru Aldundiarekin ezarritako lankidetza-esparruarekin jarraitzea, etxez etxeko laguntzaren eremuan hain zuzen ere.*

*Lankidetza-hitzarmen honen funts izango da 2/2016 Legearen 17.1. artikuluan jasotako Udalaren eskumen hau:*

*"1.– Lege honetan eta aplikatu beharreko legerian xedatutakoaren esparruan, udalerriek honako esparru material hauetan erabili ahal izango dituzte eskumen propioak:*

*13) Gizarte-zerbitzuak antolatzea, planifikatzea eta kudeatzea".*

*Honekin loturik doa, hain zuzen, Hitzarmenak lortu nahi duen xedea, 12/2008 Legearen 22.1.2. artikuluak etxez etxeko laguntza-zerbitzua lehen mailako arretaren barruan sartzen baitu. Gainera, Lege bereko 42.4 artikuluak Udalen eskumen bezala sailkatzen ditu lehen mailako arretakoak:*

*"4.– Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoko lehen mailako arretako gizarte-zerbitzuak eskaintzea, telelaguntza-zerbitzua izan ezik, Eusko Jaurlaritzaren eskumenpekoa da-eta. Lehen arretako gizarte-zerbitzu horiek 22. artikuluko 1. paragrafoan daude arauturik".*

***LAUGARRENA**.- Hitzarmenak bete beharreko baldintzak 40/2015 Legearen 48. artikuluan aurreikusten dira. Kasu honetan, ondorengoak dira aipagarrienak:*

*"3. **Hitzarmenak sinatuz kudeaketa publikoaren efizientzia hobetu** beharko da, bitarteko eta zerbitzu publikoen baterako erabilera erraztu, erabilgarritasun publikoko jarduerak egin daitezen lagundu, eta aurrekontu-egonkortasunerako eta finantza-jasangarritasunerako legeria bete.*

*8. Alderdiek adostasuna emanez burutzen dira hitzarmenak".*

*Lege bereko 49. artikuluan izendatzen da hitzarmenek izan beharreko gutxieneko edukia:*

ESKU54767aae-5848-4ac7-be6d-471bb884599a

| *LEGEZKOTASUNA BETETZEA* | *BAI/EZ* | *OHARRA* |
|---|---|---|
| *a) Hitzarmena sinatzen duten subjektuak, eta alderdietako bakoitzaren gaitasun juridikoa.* | *BAI* | |
| *b) Zer eskumenetan oinarritzen den administrazio publikoaren jarduera.* | *BAI* | |
| *c) Hitzarmenaren xedea eta subjektu bakoitzak hura betetzeko egin beharreko jarduerak.* | *BAI* | |
| *d) Alderdietako bakoitzak bere gain hartutako betebehar eta konpromiso ekonomikoak, halakorik badago.* | *BAI* | |
| *e) Alderdietako bakoitzak bere gain hartutako betebehar eta konpromisoen ez betetzeari aplikatu beharreko ondorioak.* | *BAI* | |
| *f) Jarraipen, zaintza eta kontrolerako mekanismoak.* | *BAI* | |
| *g) Hitzarmena aldatzeko araubidea.* | *BAI* | |
| *h) Hitzarmenaren indarraldia.* | ***BAI**** | |

*Hitzarmenaren indarraldiari dagokionez, hitzarmen originaleko klausula ez da oso argia. Idazkerari erreparatuz gero, badirudi hitzarmenaren indarraldia 2 urte eta 3 hilabetekoa dela (2021eko urriaren 1etik 2023ko abenduaren 31ra), eta, iraupenaren eta luzapenen artean, gehienez 4 urtera irits daitekeela hitzarmenaren iraupena (2025eko irailera arte). Paragrafo bat gehitu zaio ondoren, beste 4 urtera arteko luzapena egiteko aukerarekin; lehenengo 4 urte horietan egin da legeak baimentzen duen luzapena, ordea.*

*Hartara, hurrengo urteetako luzapenei begira, klausula berridatzi beharko da, legeari dagokionez idazkera egokiago bat lortzeko.*

***BOSGARRENA**.- 19/2013 Legearen 8.1 artikuluaren b) atalean jasotzen denari jarriki, Hitzarmena argitaratu egin beharko da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Gardentasun atarian eta Udaletxeko Iragarki Taulan:*

*“1. Titulu honen aplikazio-eremuan aipatzen diren subjektuek ekonomian edo aurrekontuan eragina duten administrazio-kudeaketako egintza hauei buruzko informazioa **argitaratu beharko dute, gutxienez**:*

ESKU54767aae-5848-4ac7-be6d-471bb884599a

*b) **Sinatutako hitzarmenen zerrenda**, honako hauek adierazita: sinatzaileak, xedea, iraupena, aldaketak, prestazioak emateko obligazioa dutenak eta adostutako obligazio ekonomikoak –baldin badaude–".*

***SEIGARRENA**.- 7/1985 Legearen 21.1 artikuluak dioenaren arabera, hitzarmen hau onartzeko eskumena Alkatearena izango da:*

*"s) Legeek berariaz aitortzen dizkioten gainerakoak, eta Estatuko legediak edota autonomia erkidegoetakoak udalerriari esleitutakoak izanik udaleko beste organo batzuei egotzi ez dizkietenak".*

*Hala ere, 2023ko uztailaren 3ko 2023-1707 Alkatetza Dekretuak, lankidetza-hitzarmenak sinatzeko eskumena Tokiko Gobernu Batzarrari ematen dio, betiere 9/2017 eta 38/2003 Legeen aplikazio-eremutik kanpo gelditzen bada:*

*"5. Lankidetza-hitzarmenak:*

*Beste administrazioekin edo pertsona fisiko eta juridikoekin lankidetza-hitzarmenak onartzea, ondoko legeen aplikazio-eremutik kanpo geratzen direnak: 9/2017 Legea, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituena, 38/2003 Lege Orokorra, dirulaguntzei buruzkoa, eta horiek garatzeko arauak".*

*Hartara, eta aurreko bi arauetan esandakoa kontuan izanik, **Tokiko Gobernu Batzarrari** dagokio hitzarmen hau onartzeko eskumena.*

*Aurreko guztia aintzat harturik, hona hemen nire*

***P R O P O S A M E N A***

***LEHENA**.- - Tolosako Udalaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren arteko Hitzarmenaren luzapena sinatzearen aldeko txostena egitea, betiere 2026ko hurrengo luzapenaren aurretik hamalaugarren klausula berridazteko baldintzapean.*

***BIGARRENA**.- Tokiko Gobernu Batzarrari aipatutako hitzarmenaren luzapena onartzeko, hasierako hitzarmenaren eranskin bezala onartzeko eta hura egikaritzeko ebazpen proposamena egitea.*

***HIRUGARRENA**.- Hitzarmenaren testua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Gardentasun atarian eta Udaletxeko Iragarki Taulan argitaratzea, 19/2013 Legearen 8.1 artikuluaren b) atalean xedaturikoarekin bat.*

***LAUGARRENA**.- Erabaki hau Kontuhartzailetza eta Diruzaintza, eta Gizarte Zerbitzuak eta Osasuna Sailei jakinaraztea.*

**ESKU54767aae-5848-4ac7-be6d-471bb884599a**

Fiskalizazio txostena egin dela, hau jasotzen duena:

“

**B) AZTERKETA**

Gipuzkoako Foru Aldundiak egindako proposamenaren arabera, hitzarmenaren gainerako klausula eta xedapen guztiek indarrean eta aplikagarri jarraitzen dute. Horien artean, Aldundiak eta udalak hartutako konpromiso ekonomikoenak.

1.-Gipuzkoako Foru Aldundiak bere gain hartutako konpromiso ekonomikoak
Hitzarmenaren hirugarren klausularen arabera, urteko gehieneko foru finantzazioa 2019. urtearen berdina jarraitzen du izaten.
Foru finantzaketa zehazteko erabiliko den ordu bakoitzeko gehieneko tarifak ere ez dira aldatu 2019tik, eta ondorengo hauek dira:

Ordu bakoitzeko asteguneko tarifa: 18,87 €
Ordu bakoitzeko igande eta jaiegunetarako tarifa: 22,66 €

2.-Udalak bere gain hartutako konpromisoak

Hitzarmenaren laugarren klausularen arabera, udalerri bakoitzean foru finantzaketa gainditzen duen gastua udalak hartuko du bere gain.

Zerbitzuaren prezioak, 2019an eta 2023ean sinatutako kontratuetan zein 2025eko otsailaren 15ean sinatu zen kontratuan (2024SABI0002) ondorengo hauek dira:

| *Prezioak* | *2019* | *2023* | *2025* |
|---|---|---|---|
| *lanegunak* | *20,17* | *24,08* | *30,19* |
| *jaiegunak* | *25,52* | *31,04* | *39,32* |

2023an sinatutako kontratuak 42.500 lanegun ordu eta 1.500 jaieguneko orduak aurreikusi zituen. Dena den, benetan ematen ziren orduak kontutan hartzen baditugu, lanegun orduan, urtero 53.000 ingurukoak ziren, eta jaiegunekoak 500ekoak.

2025eko otsailaren 15ean sinatu zen kontratuak 54.000 lanegun ordu eta 1.000 jaiegun ordu aurreikusi zituen.
Datu horien arabera, udalak bere gain hartzen duen konpromisoa 347.620,00 euro urteko igoko litzateke 2023an hartutako konpromisoarekin konparatzen badugu, ondorengo taulan ikusten den moduan:

| *Udalaren konpromisoa* | *2019* | *2023* | *2025* |
|---|---|---|---|
| *lanegunak* | *55.250,00* | *276.130,00* | *611.280,00* |
| *jaiegunak* | *4.290,00* | *4.190,00* | *16.660,00* |
| | ***59.540,00*** | ***280.320,00*** | ***627.940,00*** |

ESKU54767aae-5848-4ac7-be6d-471bb884599a

**C) ONDORIOAK**

Hitzarmenaren luzapenak ezartzen duen finantza-egokitzapenerako mekanismoak ez du aldundiaren konpromiso ekonomikoa aldatzen, baina **nabarmen handitzen du udalak hartzen duen konpromisoa,** berak hartzen baitu bere gain zerbitzuaren gastuaren igoera osoa.”

7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, 22.2. artikuluan xedatutakoaren arabera, honako organo honi dagokio arlo honetako onespena ematea: Udalbatza. Bestalde, Tolosako Alkatetzak, 2023ko uztailaren 3ko 2023/1707 Dekretuaren bitartez, lankidetza-hitzarmenak onartzeko ahalmena Tokiko Gobernu Batzarrari eskuordetzea erabaki zuen. Horiek horrela, **Tolosako Udaleko Tokiko Gobernu Batzarra da hitzarmen hau onartzeko organo eskuduna.**

Beraz, aurreko guztia aintzat hartuta, eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

**E R A B A K I  D U**

**LEHENA-** Tolosako Udalaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren arteko Hitzarmenaren luzapena sinatzea, 2025eko urriaren 1etik 2026ko irailaren 30era bitarteko eraginarekin. betiere 2026ko hurrengo luzapenaren aurretik hamalaugarren klausula berridazteko baldintzapean.

**BIGARRENA.-** Tokiko Gobernu Batzarrari aipatutako hitzarmenaren luzapena onartzeko, hasierako hitzarmenaren eranskin bezala onartzeko eta hura egikaritzeko ebazpena egitea.

**HIRUGARRENA.-** Alkate-Lehendakariari ahalmena ematea akordio hau aurrera eramateko behar diren dokumentu guztiak sinatzeko.

**LAUGARRENA.-** Hitzarmenaren testua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Gardentasun atarian eta Udaletxeko Iragarki Taulan argitaratzea, 19/2013 Legearen 8.1 artikuluaren b) atalean xedaturikoarekin bat.

**Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo dute 10:45ean.**

**ALKATEA** **UDAL IDAZKARIA**

ESKU54767aae-5848-4ac7-be6d-471bb884599a

**TOLOSAKO UDALAREN ETA EUDEL-EUSKADIKO UDALEN ELKARTEAREN ARTEKO HITZARMENA, EUROPAKO BATZORDEAK DISEINATUTAKO GOBERNANTZAKO BIKAINTASUNAREN EUROPAKO ZIGILUA (ELOGE) EZARTZEKO LANTALDE BATEAN PARTE HARTZEKO**

BATU DIRA

Alde batetik, Esther Apraiz Fernández la Peña andrea, Euskadiko Udalen Elkartea-EUDELeko elkarteburua.

Eta, bestetik, Cristina Pelaez Errazquín, Tolosako Udaleko Antolakuntza esparruko zinegotzia, Sara Berasategui Fuertes idazkariaren laguntzarekin.

Bi aldeek elkarri aitortzen diote lankidetza hitzarmen hau formalizatzeko eskumena eta gaitasuna.

**HONAKOA ADIERAZI DUTE**

I. Tokiko esparruko Gobernantzako Bikaintasunaren Europako Zigilua, ELOGE, Europako Kontseiluak tokiko esparruan berrikuntzarako eta gobernantza onerako ezarri duen estrategiaren oinarrietako bat da. Estrategia hau tokiko eragileen eta gainerako instituzioen ekintza mugiarazi eta pizteko xedez ezarri zen, Europako herritar guztiek gobernantza demokratiko ona izan dezaten tokiko esparruan.

II. Bere estatutuetako 5. artikuluan jasotzen diren Tokiko Demokrazia sustatzeko eta babesteko eginkizunetan oinarrituta, EUDELek eskualdeko plataforma izendatu dezan eskatu dio Europako Kontseiluari, zigilua ezartzetik eratorritako konpromiso eta betebeharrak bere gain hartzeko,

**CONVENIO ENTRE EL AYUNTAMIENTO DE TOLOSA y EUDEL-ASOCIACIÓN DE MUNICIPIOS VASCOS PARA PARTICIPAR EN UN GRUPO DE TRABAJO PARA LA IMPLANTACIÓN DEL SELLO EUROPEO DE EXCELENCIA EN GOBERNANZA (ELOGE) DISEÑADO POR EL CONSEJO DE EUROPA**

REUNIDOS

De una parte, Dña. Esther Apraiz Fernández la Peña, presidenta de la Asociación de Municipios Vascos (EUDEL).

De otra parte, Dña. Cristina Peláez Errazquín, Concejala del Área de trabajo de Organización del Ayuntamiento de Tolosa, asistida por Sara Berasategui Fuertes, Secretaria de este Ayuntamiento

Ambas partes se reconocen competencia y capacidad para formalizar el presente Convenio de Colaboración.

**MANIFIESTAN**

I. Que el Sello Europeo de Excelencia en Gobernanza a nivel local, denominado ELOGE, es uno de los pilares de la Estrategia para la Innovación y la buena gobernanza a nivel local del Consejo de Europa. Esta Estrategia fue adoptada con objeto de movilizar y estimular la acción de los actores locales y del resto de instituciones para que toda la ciudadanía europea pueda beneficiarse de una buena gobernanza democrática a nivel local.

II. Que conforme a las funciones de promoción y protección de la Democracia Local que se recogen en el artículo 5 de sus Estatutos, EUDEL ha solicitado al Consejo de Europa la designación como plataforma regional asumiendo los compromisos y obligaciones derivados de la implantación del Sello y poder

ESKU54767aae-5848-4ac7-be6d-471bb884599a

eta, metodologiarekin bat etorriz, Euskadiko udalei ELOGE zigilua eman ahal izateko.

conceder, conforme la certificación en esta metodología, el Sello ELOGE a los Ayuntamientos Vascos.

III. Tolosako Udalak ELOGE zigiluaren metodologia ezarri nahi du bere antolakuntzan. Erakunde honen ustez, tresna hau tokiko gobernantzaren aldeko apustua da, ELOGE zigiluaren eskualdeko plataformarekin koordinatutako hobekuntzarako etengabeko prozesu sistematikoarekin bat etorriz.

III. Que el Ayuntamiento de Tolosa desea implementar la metodología del Sello ELOGE en su organización, considerando que esta herramienta supondrá una apuesta por un modelo de gobernanza local, sujeto a un proceso de mejora continua sistemática y coordinada con la plataforma regional del Sello ELOGE.

IV. Euskadiko udalen artean ELOGE zigilua bultzatzeko asmoz, EUDELek lantalde bat eratzea proposatu du. Lantalde horrek ELOGE zigiluaren metodologia garatzen lagunduko du, eta aipatutako metodologia ELOGE zigilua egiaztatzeko interesa agertu duten Euskadiko udalen antolakuntzan ezarriko da.

IV. Que para impulsar el Sello ELOGE entre Ayuntamientos Vascos, EUDEL ha propuesto la constitución de un grupo de trabajo que ayude a desarrollar la metodología del Sello ELOGE al tiempo que se implementa en la organización de los Ayuntamientos Vascos que se han mostrado interesados en la acreditación del Sello ELOGE.

Ondorioz, EUDELek eta Tolosako Udalak, aurretik azaldutakoaren arabera, lankidetza hitzarmen hau formalizatuko dute, hurrengo klausulekin bat etorriz:

En consecuencia, EUDEL y el Ayuntamiento de Tolosa conforme a lo anteriormente expuesto, proceden a formalizar el presente Convenio de participación con arreglo a las siguientes cláusulas

## KLAUSULAK

**LEHENENGOA**. Hitzarmen honen xedea da Tolosako Udalak proiektuan izango duen parte-hartzea arautzea. EUDELen koordinazio eta zuzendaritzapean, ELOGE zigiluaren ziurtapena bultzatuko du gobernantzaren alorrean, eta barne hartzen ditu Udal honetan zigilua ezartzeko prozesuan beharrezkoak diren aholkularitza eta laguntza.

EUDELek eta Udalak partekatuko dute udalerrian ELoGE ezartzeko prozesutik lortutako banakako emaitzen (isilpekoak) eta emaitza orokorren txostenen **titulartasuna**.

## CLÁUSULAS

**PRIMERA-** El objeto del presente convenio es regular la participación del Ayuntamiento de Tolosa en el proyecto que, bajo la dirección y coordinación de EUDEL, impulsará la certificación del Sello ELOGE en materia de gobernanza incluyendo el asesoramiento y acompañamiento en la implementación del Sello en este Ayuntamiento.

EUDEL y el Ayuntamiento compartirán la **titularidad** de los informes de resultados tanto individuales (de carácter confidencial) como globales, obtenidos del proceso de implantación de ELoGE en el municipio.

ESKU54767aae-5848-4ac7-be6d-471bb884599a

**BIGARRENA-** Hitzarmen honen esparruan aldeek dituzten obligazioak honako hauek dira.

Udalaren obligazioak:

**a)** EUDELi **7.865 euroko** diru-ekarpena egitea, hitzarmen honetatik eratorritako udal-ekarpen gisa, hobekuntza-plana egin ondoren eta Zigilua banatzeko ekitaldia egin aurretik (ikus bosgarren klausula). Ordainketa bakarra egingo da, proiektu hau garatzeko beharrezkotzat jotzen diren partida ekonomikoen zati proportzionala finantzatzeko (laguntza teknikoa), Tolosako Udalak, 2025eko udal aurrekontuetan ordainketa honi aurre egiteko beharrezko kreditua erreserbatzeko konpromisoa hartzen du.

**b)** Ekarpen horren kontraprestazio gisa, udal antolakuntzan ELOGE zigiluaren metodologia ezartzeko beharrezko aholkularitza jasoko du, eta EUDELek udal interesdun guztien eskura jarritako “Berrikuntzaren eta gobernantza onaren Europako zigiluari buruzko Benchmark” delakoan proposatzen diren adierazleekin eta metodologiarekin lan egingo du.

**c)** Tokiko gobernantzaren alorrean proiektua garatzeko beharrezkoak diren zereginak bere gain hartuko ditu, eta . Miren Yosune Sanz Vidal andrea proiektuaren arduradun politiko izendatuko du; era berean, arduradun tekniko bat edo bi izendatuko ditu, eta Udalean proiektua koordinatzeko ardura

**SEGUNDA-** Las obligaciones a desarrollar por las partes en el marco de este convenio son las siguientes.

Por parte del Ayuntamiento:

**a)** Aportar a EUDEL, en concepto de aportación municipal derivada del presente convenio, la cantidad dineraria de **7.865 euros**, una vez realizado el plan de mejora y antes de la celebración de la ceremonia de entrega del Sello (ver cláusula quinta), en un único pago, con la finalidad de financiar una parte proporcional de las partidas económicas (asistencia técnica) que se consideran necesarias para desarrollar este proyecto. El Ayuntamiento de Tolosa se compromete a reservar los créditos oportunos en el presupuesto del ejercicio 2025, a fin de hacer frente a dicho pago.

**b)** A recibir como contraprestaciones de esa aportación, el asesoramiento necesario para implementar en la organización municipal la metodología del Sello ELOGE, trabajando con los indicadores y metodología que se propone en “Benchmark sobre el Sello europeo de la innovación y la buena gobernanza” que ha sido facilitado por EUDEL a todos los Ayuntamientos interesados.

**c)** Asumir las tareas necesarias para el desarrollo del proyecto como compromiso del Ayuntamiento en materia de gobernanza local, designando como responsable político del proyecto a D/ Dña. Miren Yosune Sanz Vidal así como a una o dos personas responsables técnicas encargadas de la coordinación del proyecto en la organización municipal, y de

ESKU54767aae-5848-4ac7-be6d-471bb884599a

eta Tolosako herritarrek proiektu honetan izango duten parte-hartzea bideratzeko ardura izango dute, hurrenez hurren. Udal bakoitzeko arduradun teknikoak proiektuaren Batzorde Teknikoan sartuko dira, EUDELekin batera lana koordinatu ahal izateko.

EUDELen betebeharrak:

**a)** Proiektuaren barruan kontratatuko diren gastuak ordaintzeko xedez, lantaldea osatzen duten udalek egingo dituzten diru-ekarpenak bildu eta bideratuko ditu, eta jasotako zenbatekoak hitzarmen honen HIRUGARREN klausularen arabera justifikatuko ditu.

EUDELek, bere aldetik, proiektuaren garapena koordinatu eta errazteko eta zabalkunde- eta komunikazio-lanetarako beharrezkoak diren baliabide tekniko, instalazio eta bestelako baliabide logistikoen gastuak ordainduko ditu (Zigilua emateko ekitaldia).

**b)** Proiektua koordinatu, gainbegiratu eta jakinaraziko du; udal bakoitzean metodologiaren ezarpena proposatuko du; ELOGE zigiluaren eskualde-plataformako zereginak gauzatuko ditu, lantalde honetan parte hartzen duten udalen emaitza bateratuekiko, banakako eta eskualdeko ebaluazioa egiteko.

**c)** Zigiluak banatzeko ekitaldia antolatuko du, Europako Kontseiluarekin koordinatuta, eta dagokion ziurtagiria

abordar la participación de la ciudadanía del municipio de Tolosa en este proyecto respectivamente. Las personas responsables técnicas de cada Ayuntamiento se integrarán en el Comité Técnico del proyecto para la coordinación del trabajo en EUDEL.

Por parte de EUDEL:

**a)** Recoger y canalizar las aportaciones dinerarias de los Ayuntamientos que formen parte del grupo de trabajo como parte del pago de los gastos del proyecto que sean contratados, justificando las cantidades recibidas conforme a la cláusula TERCERA del presente convenio.

EUDEL, por su parte, contribuirá con los gastos derivados del personal técnico de la organización, medios técnicos, instalaciones y otros recursos logísticos necesarios para coordinar y facilitar el desarrollo del proyecto así como para las labores de difusión y comunicación (Ceremonia de entrega del Sello).

**b)** Coordinar, supervisar y comunicar el desarrollo del proyecto; proponer la implementación de la metodología en cada organización municipal; desarrollar las labores propias de la plataforma regional en el sello ELOGE para llevar a cabo una labor de evaluación individual y regional respecto de los resultados del conjunto de los Ayuntamientos que participan en este grupo de trabajo.

**c)** Organizar la sesión de entrega de los Sellos en coordinación con el Consejo de Europa y entregar la certificación

ESKU54767aae-5848-4ac7-be6d-471bb884599a

emango du; hala badagokio, hobekuntzarako udal planak ezarriko ditu udal antolakuntza bakoitzean.

correspondiente y en su caso, culminando en el proceso con planes municipales de mejora en cada organización municipal.

**HIRUGARRENA**- Proiektu hau gauzatzeko beharrezkotzat jotzen diren partidak justifikatzeko, EUDELek honako dokumentazioa aurkeztu beharko du:

**TERCERA-** La justificación por parte de EUDEL de las partidas económicas que se consideren necesarias para el desarrollo de este proyecto, se realizará mediante la aportación de la siguiente documentación:

a) Egindako jarduerak eta lortutako emaitzak justifikatzeko memoria.

b) Egindako jardueren kostua justifikatzeko memoria; honakoak jaso beharko ditu:

- Proiektuari egotzitako gastuen eta diru-sarreren egoera.
- Gastuen zerrenda sailkatua, hartzekoduna, fakturaren data eta zenbatekoa adierazita.
- Diru-sarreren zerrenda sailkatua, diru-sarrera egiten duen erakundearen izena eta zenbatekoa adierazita.

a) Memoria de actuación justificativa de las actividades realizadas y de los resultados obtenidos.

b) Memoria justificativa del coste de las actividades realizadas, que deberá contener:

- Estado de gastos e ingresos imputados al proyecto.
- Relación clasificada de gastos, con identificación del acreedor, fecha de factura e importe.
- Relación clasificada de ingresos, con indicación del organismo que aporta el ingreso y el importe.

EUDELek hiru hilabeteko epean aurkeztu beharko du justifikazio ekonomikoa, proiektua amaitzen denetik zenbatzen hasita, gehienez ere, 2026ko apirilaren 30era arte.

EUDEL deberá presentar la justificación económica en el plazo máximo de tres meses desde la finalización del proyecto hasta el 30 de abril de 2026.

**LAUGARRENA**- Proiektu honi esleitutako arduradun politikoak proiektuaren Batzorde Eragilean sartuko dira, eta ekimen honekiko konpromiso politikoa ikusaraztea beharrezkoa den egoeretan dei egingo zaie, hala Euskadiko beste instituzio batzuen esparruan nola Europako

**CUARTA-** Las personas responsables políticas asignadas a este proyecto, se integrarán en el Comité ejecutivo del proyecto y serán convocadas en aquellas ocasiones que sea necesario visualizar el compromiso político con esta iniciativa, bien sea con otras instituciones vacas o en las relaciones con el Consejo de Europa.

ESKU54767aae-5848-4ac7-be6d-471bb884599a

Kontseiluarekiko harremanen esparruan. Era berean, EUDELen eskariz edo udal parte-hartzaileen arduradunen eskariz, batzorde hori deitu ahal izango da, proiektua hobeto kudeatu, garatu eta gainbegiratzeko.

Igualmente, este grupo podrá ser convocado, a solicitud de EUDEL o de cada persona responsable política de los Ayuntamientos participantes, para una mejor gestión, desarrollo y seguimiento del proyecto.

**BOSGARRENA**- Proiektu hau garatzeko aurreikusitako egutegia jarraian jasotakoa izango da, ELOGE metodologiaren aholkularitza- eta egokitze-zereginak betearazteak eta koordinatzeak baldintzatuta:

- Udal bakoitzean lantaldea eratzea eta prestatzeko lehen udal-bilerak egitea. (ekaina-uztaila 2025).
- Proiektu hau gauzatzeko aholkularitza eta laguntza zerbitzua (iraila – abendua 2025).
- Emaitzak eta binakako konparazioak aurkezteko saioak, eta udal bakoitzaren emaitzak egiaztatzea (urria – abendua 2025).
- Hobekuntza planak eta Zigilua banatzeko ekitaldia (abendua 2025 – urtarrila 2026).

**QUINTA-** La duración prevista para el desarrollo de este proyecto, condicionada a la ejecución y coordinación de las tareas del asesoramiento y adecuación de la metodología ELOGE, tendrá el siguiente calendario orientativo:

- La constitución del grupo de trabajo en cada Ayuntamiento y primeras reuniones preparatorias municipales (junio-julio 2025).
- Servicio de asesoramiento y acompañamiento para desarrollar este proyecto (septiembre – diciembre 2025).
- Sesiones de presentaciones de los resultados y la comparación entre pares, así como la verificación de los resultados de cada Ayuntamiento (octubre-diciembre 2025)
- Planes de Mejora y ceremonia de entrega del Sello (diciembre 2025-enero 2026)

Hori guztiori, aldi baterako plangintza honek izan ditzakeen aldaketak kontuan hartu gabe. EUDELek lan honetarako kontratatutako laguntza teknikoak horiek justifikatzen dituenean, onartu egingo dira, eta, kasu horretan, aurretiaz jakinaraziko zaizkie udalei.

Todo ello sin perjuicio de los posibles cambios en esta planificación temporal que, cuando estén justificados por la asistencia técnica contratada por EUDEL para este trabajo, puedan ser aceptados, y en este caso serán comunicados con la suficiente antelación a los Ayuntamientos.

**SEIGARRENA**- Aholkularitza horren esparruan, EUDELek Udalaren esku jarriko ditu, horretarako izendatutako idazkaritza teknikoaren bidez, proiektua garatzeko ezinbestekoak diren metodologia,

**SEXTA-** En el marco de dicho asesoramiento, EUDEL pondrá a disposición del Ayuntamiento a través de la secretaría técnica designada al efecto, la metodología, documentos modelo y

ESKU54767aae-5848-4ac7-be6d-471bb884599a

dokumentu ereduak eta tresna informatikoak. **Aipatutako materialen erabilera konfidentziala eta know-how babestua izango da**, eta, beraz, Udalak konpromisoa hartzen du informazio konfidentziala ezarritako helburuetarako soilik erabiltzeko, ez erreproduzitzeko, ez aldatzeko eta ez zabaltzeko, idazkaritza teknikoaren berariazko baimenik gabe, eta informazio hori ezagutu behar duten eta konfidentzialtasun betebehar berberak dituzten pertsonei soilik bermatzeko.

herramientas informáticas imprescindibles para el desarrollo del proyecto. **El uso de los materiales citados será de carácter confidencial y know-how protegido,** por lo que el Ayuntamiento se compromete a utilizar la información confidencial exclusivamente para los fines establecidos, no reproducirla, modificarla ni divulgarla sin la autorización expresa de la secretaría técnica, y a garantizar su acceso solo a personas que necesiten conocerla y estén sujetas a las mismas obligaciones de confidencialidad.

**ZAZPIGARRENA**- Hitzarmen hau **aldatzeko**, alderdi sinatzaileen aho bateko adostasuna beharko da.

**SÉPTIMA -** Para la **modificación** del presente Convenio se requerirá acuerdo unánime de las partes firmantes.

**ZORTZIGARRENA-** Aldeetako batek hitzarmena **betetzen ez badu**, hitzarmena bertan behera geratuko da, eta ezin izango da kalte-ordainik jaso hitzarmena ez betetzeagatik.

**OCTAVA-** El **incumplimiento** de cualquiera de las partes dará lugar a la resolución del Convenio sin que quepa ninguna indemnización por su incumplimiento.

**BEDERATZIGARRENA- Udal bakoitzak** EUDELi ordaintzeko **kuotak** Kutxabank bankuko kontu zenbaki honetan sartuko dira:

**NOVENA-** El abono a EUDEL de las **cuotas de cada Ayuntamiento** se efectuará en la cuenta de la entidad bancaria Kutxabank:

| IBAN kodea: | Código IBAN: |
|---|---|
| ES14 2095 0611 0932 3000 3199 | |
| **Swift kodea (BIC):** | **Código Swift (BIC):** |
| BASKES2BXXX | |

**HAMARGARRENA-** Hitzarmen honetan araututa ez dagoena, lege-arau hauetan xedaturikoarekin bete beharko da: 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena.

**DÉCIMA-** En lo no regulado en el presente convenio, se estará a los dispuesto en la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.

ESKU54767aae-5848-4ac7-be6d-471bb884599a

**HAMAIKAGARRENA-** Hitzarmen hau Tolosako Udalaren gardentasun-atarian argitaratuko da, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 8. artikuluaren b) eta c) apartatuetan eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 55. artikuluaren e) eta h) apartatuetan xedatutakoaren arabera.

Era berean, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 18.2 eta 20.2 artikuluetan ezarritakoa betez, Dirulaguntzen Datu-base Nazionalean (BDNS) argitaratuko da, emandako dirulaguntzen zenbatekoa eta, hala badagokio, benetan jasotako zenbatekoak adierazita.

Argitalpenak datu pertsonalak eduki ditzakeen kasuetan, uneoro bermatuko da horien babesa, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren zazpigarren xedapen gehigarrian aurreikusitakoaren arabera.

Alde biek hitzarmen hau irakurri dute, eta, horren edukiarekin bat etorrita, bi ale sinatu dituzte ondorio bakarrerako,

**UNDÉCIMA-** Conforme a lo dispuesto en el artículo 8, apartados b) y c), de la Ley 19/2013, de 9 de diciembre, de Transparencia, Acceso a la Información Pública y Buen Gobierno, así como en el artículo 55, apartados e) y h), de la Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi, el presente convenio será objeto de publicación en el Portal de Transparencia del Ayuntamiento de Tolosa.

Asimismo, en cumplimiento de lo establecido en los artículos 18.2 y 20.2 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, se procederá a su publicación en la Base de Datos Nacional de Subvenciones (BDNS), con indicación del importe de las subvenciones concedidas y, en su caso, de las cantidades efectivamente percibidas.

En aquellos supuestos en que la publicación pueda contener datos de carácter personal, se garantizará en todo momento su protección conforme a lo previsto en la disposición adicional séptima de la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales.

Habiendo leído las partes el presente convenio y hallándose conformes con su contenido, lo firman por duplicado ejemplar y a un solo efecto,

Esther Apraiz Fernández la Peña andrea
Elkarteburua
EUDEL

Cristina Pelaez Errazquin andrea
Antolakuntza esparruko Zinegotzia
Tolosako Udala

ESKU54767aae-5848-4ac7-be6d-471bb884599a

***ERANSKINA, ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA FINANTZATZEKO GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN ETA XXXXKO UDALAREN ARTEKO HITZARMENA LUZATZEKOA.***

***ADENDA DE PRÓRROGA DEL CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE LA DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA Y EL AYUNTAMIENTO DE XXXX PARA LA FINANCIACIÓN DEL SERVICIO DE AYUDA A DOMICILIO.***

*Sinadura elektronikoaren tokian eta egunean.*

*En el lugar de la firma electrónica.*

***ELKARTU DIRA***

*Alde batetik,*

*MAITE PEÑA LÓPEZ Gipuzkoako Foru Aldundiko Zainketa eta Gizarte Politiketako foru diputatua eta Aldundiaren ordezkaria, Diputatuen Kontseiluak 2025eko irailaren 10ean egindako bileran hartutako erabakiaren bidez egintza honetarako berariaz baimenduta.*

*Eta bestetik,*

*……………NORK……………., Udaleko ……KARGUA…….. eta ordezkaria, 2025eko ……….ren ………ko Osoko Bilkurak hartutako erabakiaren bidez egintza honetarako berariaz baimenduta.*

***REUNIDOS***

*De una parte,*

*Doña MAITE PEÑA LÓPEZ en calidad de diputada foral del Departamento de Cuidados y Políticas Sociales de la Diputación Foral de Gipuzkoa y en su representación, expresamente autorizada para este acto por acuerdo del Consejo de Gobierno Foral de 10 de septiembre de 2025.*

*Y de otra parte,*

*…QUIÉN……., en calidad de ………CARGO…. del Ayuntamiento de …………… y en su representación, expresamente autorizado/a para este acto por acuerdo Plenario Municipal de ………. de ……… de 2025.*

***AZALTZEN DUTE***

***I.-*** *Aldeek...... (e) ko............ aren.... (e) (a) n sinatu zuten Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta xxxx (e) ko Udalaren arteko lankidetza-hitzarmena, etxez etxeko laguntza-zerbitzua finantzatzeko.*

***II.-*** *Hitzarmenaren hamalaugarren klausulak hitzarmenaren indarraldia ezartzen du, eta adierazten du gehienez lau urtekoa izango dela. Nolanahi ere, hitzarmena sinatu duten alderdiek aho batez eta hura amaitu baino lehen adostu ahal izango dute lau urte gehiagoz luzatzea edo azkentzea.*

***EXPONEN***

***I.-*** *Que las partes firmaron el …. de …….. de …… el convenio de colaboracion entre la Diputación Foral de Gipuzkoa y el Ayuntamiento de xxxx para la financiación del servicio de ayuda a domicilio.*

***II.-*** *Que la cláusula decimocuarta del convenio establece la vigencia del mismo, señalando que no podrá ser superior a cuatros años, sin perjuicio de que las partes firmantes del convenio podrán acordar unánimemente y antes de la finalización de dicho plazo, su prórroga por un periodo de hasta cuatro años adicionales o su extinción.*

ESKU54767aae-5848-4ac7-be6d-471bb884599a

***III.-*** *Hitzarmenaren hamalaugarren klausulan xedatutakoaren arabera, aldeek hitzarmenaren ondorio ekonomikoak zabaltzea adostu zuten, hasierako lau urteko indarraldia agortu arte, epe hori 2025eko irailaren 30ean amaituta.*

*III.- Que en base a lo dispuesto en la cláusula decimocuarta del convenio, las partes acordaron extender los efectos económicos del convenio hasta agotar su vigencia inicial de cuatro años, venciendo dicho plazo el 30 de septiembre de 2025.*

***IV.-*** *Hamalaugarren klausularekin bat etorriz, eta hasierako indarraldia amaituta, alderdiek egokitzat jotzen dute hitzarmena urtebetez luzatzea, 2025eko urriaren 1etik 2026ko irailaren 30era.*

*IV.- Que de conformidad con la cláusula decimocuarta, y agotada la vigencia inicial, las partes estiman procedente prorrogar el convenio por un año, desde el 1 de octubre de 2025 al 30 de septiembre de 2026.*

*Aurrekoa oinarri hartuta, bi alderdiek adostu dute eranskin hau formalizatzea, honako klausula hauen arabera:*

*Con base a lo anterior, ambas partes han convenido la formalización de la presente adenda de acuerdo con las siguientes*

***KLAUSULAK***

***CLÁUSULAS***

***LEHENA.- Helburua.***

*Hitzarmena urtebetez luzatzea erabaki da, 2025eko urriaren 1etik 2026ko irailaren 30era. Luzapen hori amaituta, alderdiek beste luzapen batzuk adostu ahal izango dituzte, betiere hitzarmenean aurreikusitako beste lau urteko gehieneko aldia errespetatzen badute.*

***PRIMERA.- Objeto.***

*Se acuerda prorrogar el convenio por un año, desde el 1 de octubre de 2025 al 30 de septiembre de 2026. Una vez finalizada esta prórroga, las partes podrán acordar nuevas prórrogas, siempre que respeten el período máximo de cuatro años adicionales previsto en el convenio.*

***BIGARRENA.- Gipuzkoako Foru Aldundiak bere gain hartutako konpromiso ekonomikoak.***

*Hitzarmenaren seigarren klausulan adierazitakoaren arabera kalkulatutako urteko gehieneko foru-finantzaketa 8.192.463,00 eurokoa izango da Gipuzkoako udalerri guztientzat, honako partida hauen kargura:*

***SEGUNDA.- Compromisos económicos asumidos por la Diputación Foral de Gipuzkoa.***

*La financiación foral máxima anual calculada de acuerdo a lo señalado en la cláusula sexta del convenio, para el conjunto de los municipios de Gipuzkoa será de 8.192.463,00 euros, con cargo a las siguientes partidas:*

| *Udalak / Ayuntamientos* | *Aurrekontu-partida / Partida presupuestaria* |
|---|---|
| *2.017.706,00 €* | *1 0320.210.461.01.04 2025* |
| *6.053.116,00 €* | *5 0320.210.461.01.04 2026* |

ESKU54767aae-5848-4ac7-be6d-471bb884599a

| *Mankomunitateak / Mancomunidades* | *Aurrekontu-partida / Partida presupuestaria* |
| --- | --- |
| *30.411,00 €* | *1 0320.210.461.06.02 2025* |
| *91.230,00 €* | *5 0320.210.461.06.02 2026* |

***HIRUGARRENA.- Hitzarmenaren gainerako zatiek irautea.***

*Dokumentu honetan aurreikusi ez den guztian, hitzarmenaren gainerako klausula eta xedapen guztiek indarrean eta aplikagarri jarraituko dute, eta horiek ere aplikatuko dira dokumentu honi beharrezkoa zaion guztian.*

*Eta aurreko guztiarekin ados daudela erakusteko, dokumentu hau elektronikoki sinatzen dute, sinadura elektronikoaren tokian eta egunean.*

***TERCERA.- Subsistencia del resto del convenio.***

*En todo lo no previsto en el presente documento seguirán plenamente vigentes y aplicables todas las demás cláusulas y disposiciones del convenio, siendo las mismas igualmente de aplicación en cuanto fuere necesario al presente documento.*

*Y en prueba de conformidad con cuanto antecede, se firma electrónicamente el presente documento, en el lugar y fecha de la firma electrónica.*

***XXXXXKO UDALA / MANKOMUNITATEA***

***GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA***



EKS | CSV: ESKU54767aae-5848-4ac7-be6d-471bb884599a
*Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=07110*
*Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=07110*

# Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

| **Titulua / Título:** | 2025IGBA0030-2025/10/07ko akta/2025/10/07ko akta () |
|---|---|

**Digitalki sinatua:**

**Sara Berasategui Fuertes**
**Udal idazkaria**
**Data:** 2025/10/10 14:38:58

**Digitalki sinatua:**

**Angel Martinez de Rituerto Arregui**
**Alkatea**
**Data:** 2025/10/13 08:01:09